

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ekonomia Sustatzeko Saila**

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 6/2022 FORU DEKRETUA, otsailaren 1ekoa, zeinaren bidez zuzentzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 11ko 2/2022 Foru Dekretuan antzemandako akatsak. Foru Dekretu horren bidez, Berrikuntzari, Nazioartekotzeari eta Inbertsioari laguntza integrala emateko 3i dirulaguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira, 2022 urterako.**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 6/2022 Foru Dekretua, otsailaren 1ekoa, zeinaren bidez zuzentzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 11ko 2/2022 Foru Dekretuan antzemandako akatsak. Foru Dekretu horren bidez, Berrikuntzari, Nazioartekotzeari eta Inbertsioari laguntza integrala emateko 3i dirulaguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira, 2022 urterako.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Gobernu Kontseiluan 2022ko urtarrilaren 11an bilduta, 2/2022 Foru Dekretua onartzeko erabakia hartu zuen. Foru Dekretu horren bidez, Berrikuntzari, Nazioartekotzeari eta Inbertsioari laguntza integrala emateko 3i dirulaguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onartu ziren, 2022 urterako .

26. oinarrian adierazitako epemugan nahigabeko akats bat antzeman ondoren, bidezkoa da oinarri hori zuzentzea. Akats material bat da, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 26.b.a artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Teknika Arauemaileko Gidalerroak Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko uztailaren 4ko Erabakiaren 88. artikuluan hirugarren kasuan adierazitakoaren arabera.

Edonola ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokio aztertzea bidali den testua onartzea, 3/1987 Foru Arauaren 17. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horrenbestez, Ekonomia Sustatzeko Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak 2022ko otsailaren 1eko bileran azterturik, honako hau,

XEDATZEN DUT:

**Artikulu Bakarra. — *Justifikatzeko epea zuzentzea***

Berrikuntzari, Nazioartekotzeari eta Inbertsioari laguntza integrala emateko 3i dirulaguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia 2022 urterako onesten dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 11ko 2/2022 Foru Dekretuaren 26 oinarriko (Justifikazio-epea) 1. atala zuzendu da.

— *Honako hau dioen lekuan:*

1. Onuradunek organo instrukzio-egileari aurkeztu beharko diote ezarritako baldintzak bete direla eta dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako helburuak lortu direla egiaztatzen duen agiria, laguntza onartu eta hurrengo egunean hasiko den eta 2023ko martxoaren 31n, barne, amaituko den epean, oinarri hauetan ezarritako moduan.

— *Hau esan behar du:*

1. Onuradunek organo instrukzio-egileari aurkeztu beharko diote ezarritako baldintzak bete direla eta dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako helburuak lortu direla egiaztatzen duen agiria, laguntza onartu eta hurrengo egunean hasiko den eta 2024ko martxoaren 31n, barne, amaituko den epean, oinarri hauetan ezarritako moduan.



AZKEN XEDAPENAK

**Amaierako Xedapena Bakarra.— Indarreen jartzea**

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarreen.

Bilbon, 2022ko otsailaren 1ean.

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua,  
AINARA BASURKO URKIRI

Ahaldun Nagusia,  
UNAI REMENTERIA MAIZ